

**Musturrek sartunde**

Erdi lo hartu nindun  
zure telefono deixek:  
Ez dau inor etxean,  
eta pasatu zaitez.

Geldi egon ezine  
sartu eustan gorputzien  
eta nerbioso pareu  
segundo bakarrien.

Ta prakak ezin sartu,  
helduko nazela berandu.  
Ezin lotu alkondarie,  
eskilarak beherantz hor noie.

Eskutik heldu ginen  
eskuak sutan ziren  
di-da gure artien  
sortu zan rollotxue.

Portaleko atien  
lehenengo kalentoie  
igogailu barruen  
fuera lotsa guztixek.

Ta prakak ezin kendu  
ezin izango dot inoiz ahaztu  
ezin kendu alkondarie  
sofaren gainean etzunde.

Bildur barik  
irrintzika  
erropak etxien ziher botata  
ta zu biluzik.

Zoro moduen  
maitatu ginen  
eta probatu gendun extixe  
musturrek sartunde.

Zoro moduen  
jarri ginen  
ta gozitzen heldu zan goixa

Erdi lotan hartu nindun  
zure mutilaren deixek:  
Kotxie aparkatu dot  
laster gorantza noie.

Ta prakak ezin sartu  
ezin ixengo dot inoiz ahaztu.  
Ezin lotu alkondarie,  
eskilarantz behera banoie.

Agur esan barik,  
banoa, banoa.  
Deitu nahi dozunian.

Eta zoro moduen  
jarriko gara.  
Ta probatu gendun extixe  
musturrek sartunde.

Zoro moduen jarriko gara  
ta gozitzen goiza helduko da  
alkarrereri lotute.

**Mila doinu aidien**

Heldu da ordue,  
ilargi betieda seinalie,  
ta lamien batek  
biztu egin deust barruko sue.

Ilargi betiek  
bere orduen  
bota deu teloie,  
itzaliz zerue  
hasi da gaba,  
hasi da zirkue.

Ta lamien kantuek  
taberna baktotzien  
mila doinu aidien.

Lamien sekretuek  
eskine bakoitzien  
mila berba aidien.

Kea eskuetan  
kea kalien eta teilatuetan  
ta zu, ke artean,  
ez zaituz ikusten:  
non sartu zara?  
Lamien sekretuek  
taberna baktotzien  
mila doinu aidien.

Eta bat-batean  
dana gelditzen da  
dana ixiltzen da  
eta nire aurrera  
itzalen artetik  
agertzen zara.

Zu agertzen zara  
ta eskuak eskeiniz,  
barre egiten deustazu  
ta erortzen naiz.

Zure dantza beroa,  
zure dantza eroan.

Eta gure gorputzek  
bata bestearen kontra,  
mila moxu gabien.

Ta gure sekretuek  
danak aidean dagoz,  
maitasuna gabien.

Eta gure gorputzek  
ta gure sekretuek  
maitaleak gabien.

**Urepel**

Txoko txiki bat zara  
edur artien,  
lotan zagoz, lasaitasunien.

Zure mendi partie,  
zuriz kaliek  
etxe bitartietan, ipar haixie.

Ixilik dago dana,  
ixilik plaza,  
ixilik urrunien  
kanpandorrie.

Kanpoan hotz egiten deu  
sutondoetan sartunde,  
kantu zaharren artien  
joatzu bizixe.

Haixe hotza zara zu,  
ur hotz-hotza zara zu,  
ur hotzetan Urepel,  
ur hotzetan Urepel.

Arratsalde gorrixek  
tximinixetan  
arratsalde gorrixek  
Behe Nafarroan.

Beheko suek biztuta  
leixoetan edurre,  
ezkatzetan egurre,  
hau zure negue.

Haixe hotza zara zu,  
ur hotz-hotza zara zu.  
Ur hotzetan Urepel,  
eta zagozan lekuen  
ur hotzetan Urepel.

Udebarrixe  
etorriko jatzu  
eguzki azpixin  
mile kolore,  
eguzki azpixin  
bi mile kolore.

Berdez mendixek,  
zuriz kaliek,  
gorriz bixotzak,  
Urepel.

Txoko txiki bat zara,  
benetan maite zaitut.  
Haixe hotza...